

GEURE ORENA HELTZEN ZAIGUNEAN

«*Consumatum est*»

Joan Mari Irigoien
Elkar argitaletxea, 1993
285 orr.

Behinola, nere lagun baten amari zera entzun nion esaten: *«hemen bizi garen artean, bakoitzak nahi duena egiten eta esaten du, bakoitzak bere bizitza bizi du, inguruaren eraginez bizitzea tokatu zaiona. Eta fede gabea dela aitortzen duen askorekin egiten duzu tope. Baina nik gauza bat bakarrik dakit, ohean etzanda heriotza espero duzunean, mundu hau uzteko azken arnasa baizik falta ez zaizunean, begiak apoak bezala ireki-ireki egiten zaizkizula, eta ahoan «Jainkoa» hitza borbiltzen zaizula».*

Gizona Jainkoaren beldur dela esaten zuen emakume hark eta heriotza hurbiltzen ikusterakoan, barne damuak harrapatu eta barkamena eskatzen duela. Beste hitz batzuetan esanda, mundu bata utzi eta besterako bidean, zerbait ulertzen edo ikusten dugula, ahatik begiak apoak bezala irekitzea, argitasuna bide, eta gure azken arnasa Jainkoarentzat izaten dela.

Nere lagunaren ama honetxekin gogoratu nintzen, elaberriaren azken orrialdeetan Gadearen ezpainetan «*Consumatum est*» irakurri nuenean.

Joan Mari Irigoien-ek, narratzaile orojakilearen plumaz eta «*Babilonia*» elaberrian erabilitako sistema beraz, pertsonaia ezberdinen istorioak pasarte laburretan tartekatuz, Gadea eta Diego Herediaren jaiotza, bizitza eta bizi modua, eta heriotza kontatzen digu, mende eta mendeetan giza existentzia arduratu izan duten galderak egin eta istorio baten bidez, kezka hauei erantzuten ahaleginduz.

Istorioa lineala bada ere, argumentuaren korapiloa azken azkeneraino askatzen ez den horietakoa, egileak badu aurretiaz, ondotik agituko dena iragarri joateko abilitadea, irakurlea jakinminez gosetu eta liburuko pasarteak amorruez irenstera bultzatuko duena.

Obraren linealtasun hau orekatua geratzen da ordea, egileak istorioaren oinarri gisa tartekatu nahi izan dituen ideiak, era errekurvente batez edo boomerang efektuz, behin eta berriz platerera azaltzen dituenean, pertsonaia, leku, momentu, sentimendu edo ekintza ezberdinak profitatuz.

Bi kapitulu ditu bakarrik elaberriak, lehenengoak 271 orrialde eta bigarrenak 13 soilik dituelarik. Eta orrialde guzti hauek ia-ia soberan daudela esatera ausart daiteke bat, kapituluon izenburuak hartuz, elaberri osoaren sintesia lortzen dugulako. «ARROSA ETA KAMALEHOIA» da lehenengo kapitulu luzearen izenburua, zintzelada metaforikoz baliatuz, ARROSA = Gadea eta KAMALEHOIA = Diegoren bizitza kontatzen dituelarik, istorio biak, arestian esan bezala, tartekatuz. «ARRATSALDEKO HIRURETAN» da bigarren kapitulu laburraren titulua, non Gadea eta Diegoren bizitzek elkar topatzen duten; beren buruari lehenik eta mundu osoari gero, erakutsia eman eta heriotzarekin bat egiten duten. «**Arrosa eta kamalehoia, arratsaldeko hiruretan**» elkartzen dira eta elaberriari amaiera ematen diote.

Joan Mari Irigok bi istorio ezberdin (Gadea eta Diegorena) baina mundu bat bera deskribatzen digu, txanponaren alde biek azken finean, balio bera dutela edo eta gauza berdinak

erosteko balio dutela esan nahiz bezala (aurreragoko pasarteren batetan izpiluaz ere termino beretsuan mintzatuko delarik).

Diego Heredia, emagaldua eta edanari emana izandako Manuela eta herriko ikazkina den Paulino «Konkorra»-ren semea da. Herritarren mespretxua eta dirugabeziaren gazi-gezak zaporetu ondoren, «norbait» izatea izango du helburu, horretarako, abokatu izateko ikasten hasten delarik. Biderdian ordea, mugimendu politiko batetan parte hartu izanagatik, indarkeriak damaion boterea dastatuta, legioan sartzea erabakitzen du. Gerratez-gerrate eta garaipenez-garaipen, Zarauelgo probintziaraino helduko da, non bere bizitzak Gadearenarekin topo egingo duen.

Gadea ordea, Suitzako enbaxadorearen alaba Violeta eta Mattias von H. baroiaren semea den Konrad-en alaba izango da. Maitasuna eta aberastasuna nagusi, Gadearen bizitza, artea, musika, erlijioa, filosofia eta moralaren arau eta kondizioak azaltzeko erabiliko du autoreak. Izpituaren edo arimaren garbitasunaz arduraturik, Gadeak moja izatea erabaki eta komentuan sartzen da, non Diego igurikituko duen.

Diegok mundu honetako ikuspegi **TXARRA** edo **GAIZTOA** damaigu: gorrotoa, itsusikeria, txirotasuna, makurkeria, bekaizkeria, mendekua, gutizia, ... Diego eta bere familiaren bizitza **LURTARRA** dela esan genezake, eta **GORPUTZA** gorai patzen da beste ezereen gaineratik: gorputzaren bidez lortzen den plazer (sexua), garaipena (indar fisikoan oinarritua) eta norbere irudia (tatuaiak pintatzea adibidez, indarkeriaren edo nagusitasunaren lekuko). Hiru izango dira Diegoren lengoain gorai patzen diren dominak: **BOTEREA**, **DIRUA** eta **NAGUSITASUNA** (noizbehinka hiru terminook sinonimoak badira ere).

Diegok, mundu honetan eskuratu behar dituen helburuak lortzeko, «herritarrei» erakutsia eman beharko die, hemen, gizarteak gizabanakoarengan nolako eragina duen eta noraino mugatzen duen erakusten delarik.

Gadeak ordea, txanponaren aurpegiera **ONA** erakusten digu: maitasuna, edertasuna, aberastasuna, borondatea, garbitasuna, fedea, ... terminoetan mugituko da. Konrad, Violeta eta Gadearen bizitza **ZERUTIARRA** ez baina zerurantz begira dagoena dela baieztatu genezake. Goraipatzen dituzten ideiak **ZERUA lortzea, izpiritua garbitzea** eta zerua lortzeko nahiz izpiritua garbitzeko bitartekariak diren MUSIKA, POESIA, ARTEA, MORALA ETA JAKITURIAz mintzatuko zaigu autorea.

Familia honen istorioaren oinarrian, aukera askatasun indibiduala azpimarratzen da (Konrad-en aukera aitaren nahien aurrean, Gadearen erabakia aitaren nahien aurrean...) eta «piramide sozialak» —autorearen hitzetan» eskuratzen dizkigun tresna ezberdinen erabiltze posibilitatea azpimarratzen du.

Gainontzeko pertsonaiak (Don Narciso, Don Zoilo, anai Cecilio, Alejandra, Pablo, Pascual, Johann, Aurelio...), pertsonaia nagusien ekintzak deskribatzeko eta ulertzeko ezinbestekoak diren arren, bigarren mailakoak lirarteke.

Hitzaurrean autoreak, bere lana egitan gertaturiko istorio moldatua dela diosku eta elaberrian zehar, lekukotasuna edo egiantzekotasuna, leku izenek eta herri, komentu gaztelu eta arte lanen detailerik txikienerarterainoko deskribapenen bidez lortzen du.

Bizitza kontenplatiboa (Gadearena), ekintzak (Diegorena) oinarritutakoaren aurrean eta Diegoren «**mundu erreala**» —non burukatu egin behar den zerbait lortzeko— Gadearen «**idealismo**»-ren aurrean jartzen ditu autoreak obra guztian zehar, batak bestearekin zerikusirik ez balu bezala. Eta ideia hau, hamabi binomioren bidez kuestionatzen du: gorputza eta arima / izpiritua, lurra eta zerua, idealismoa eta errealismoa, ausentzia eta presentzia, dena eta ezereza, edukia eta forma, gaua eta eguna, burua eta bihotza, arrazoia eta sentimendua, zerua eta infernua, gezurra eta egia, eta bizitza eta ipuina.

Obraren gai nagusia Milan Kunderak «hilezkortasuna» deitutako zuen «**eternitatea**»-ren inguruan mugitzen da: geroko bizi-

tza, existentzialismoa, heriotza, ... eta bigarren maila batetan, geroko bizitza bat dagoela suposatuz, zein ote den zeru hori lotzeko bidea: birjintasuna, garbitasuna, ...

Joan Mari Irigoienen obra **metaforaz, sinboloz eta hitz jo-koz aberatsa** da, metafora eta sinboloen bidez, heriotzaren misterioa eta eternitateko jauzia azaldu nahi duelarik. Haue-
tarikoak ditugu zaldi zuria, lore urdina, hegan egitearen ideia, izpilua, gaztelua eta denbora besteak beste, gai erabilienak edo garrantzitsuenak.

Zaldi zuria (zeinari Abdul printzearen kontakizuna atxekitzen dion), argitasuna, Jainkoaren eta beraz, eternitatearen deiarren sinboloa da. Lore urdina, munduaz besteko bizitzarako iragan bidea. Musika eta artea, bere osotasunean, lurra eta zeruaren arteko bitartekari lez azaltzen dira. Hegan egitearen ideia eta nahia (bai Manuelaren gogotan eta baita Matthias von H. Baroiaren zeppelin-aren bidez Konrad-ek frogatu ahal izan zuenez), ongia eta gaizkiaren gainetik egotea, justia, suposatzen du Manuelarentzat, askatasuna eta ulemena Konrad-entzat.

Autoreak animaliez egin duen erabilera ere kontutan hartze-koa da: Manuelak bele beltza (=beldurra, zori txarraren iragarlea, patua) izan nahi lukeela dio; Diegok kamalehoiarekin parekatzen du bere burua (=aurpegi bikoitza, arrazonamendu soilez funtzionatzen duena, hotza, eritziz alda dezakeena, egoskorra); Gadeak Oscar izeneko txakurra (=laguna) maiteko du; Alejandra sugearekin (= desleiala, etsaia) parekatzen du Diegok.

Lehenengo kapitulu osoan **ideia** guzti hauek eta Diego eta Gadearen bizitzak guztiz **kontrajarriak** daudela dirudien arren, irakurleak (autorearen iragartze ahalmeneri esker), bi bide hauek bat egitea espero du. Baina nola? Zer izan zezaketen amankomunean bi pertsonaia hauek?

Bada, **zaldi zuriaren istorioa** bientzat amankomuneko kontakizuna izatean, **heriotza bidea** izango dute berdina. Hau

da, barne bakea lortuz hiltzea, nahiz eta kasu bietan, nahiko amaiera dramatiko eta bapatekoa den.

270 orrialdetan bai bataren eta bai bestearen bizitza kontatzen ihardun ondoren, autoreak heriotzarantz arinegi amiltzen ez ote dituen galdetzerik badago.

Autoreak liburu honetan. XX. mendeko literatura unibertsalak kuestionaturiko gai nagusi edo gutxienez, errekurrenteenak erabili ditu eta tratamendu berria eman dien arren, Jainkoaren edo elizaren papera (autorea=Jainkoa bera den aldetik) bereganatuz, ideiak entzunegiak suertatzen zaizkio irakurleari. Halere justifikagaritzat jo dezakegu, obra oinarritzen den mende hasierako garaia kokatzen baldin bagara.

Adierazi ideiak aberasteko, bestalde, autoreak musika, literatura, pintura, filosofia eta bibliako pasarteak sartu ditu nonahi. Autorez, berauen lanez, ideiez eta zitaz hornitzen du Joan Mari Irigoienek bere elaberria, zalantzarik gabe, lana aberasten laguntzen duena baina bide batez, irakurleari autoreak barrua hustu duelako sentsazioa uzten diona, nerabezaroan lehengoko amodiozko poema idazten duenaren antzera.

Autorearen kreazio lan gisa aberatsa den elaberri honek, istorioa kokatzen deneko garaia erabilitako aberastasun tonu hori badagokion galdetu beharrean gaude, hortaz nere zalantzak bait ditut.

Azken finean, horixe bait da idazle ororen erronka: obrak sinisgarria izan behar duela, ideia pertsonalak pertsonaien ahotan jarriz, garai ezberdinen arteko hausturak gozatuz, hizkuntza garaia eta pertsonaiei egokituz, eta nolabait, autorearen akatsak eta bileziak testuaren lerro artean nahita ahaztuz.

Ana Urkiza Ibaibarriaga